

ABEREAK ALKARTASUN BARRIAN (3)

Vaca (Ebertarrai, 9, 13)

Pues si la sangre de machos cabríos y de toros y la ceniza de *vaca* santifica con su aspersion a los contaminados...

Lei: Ezen baldin zezenén eta akerrén odolak, eta *bigáren* hauts barreyatuak, satsuak santifikatzen baditu haragiaren puritateaz den bezembatean...

Duv: Ezen baldin akher eta zezenen odolak eta *miga* hauts urzatuak, haragiaren garbipenetan sainduesten baditu khutsatuak direnak...

Ol: Alabaña, satsuak, aker eta zezenen odolez ta *txalen* errautsez zirpizinduta, aragitan garbi ta guren egiten ba'dira...

E-B: Zikiñak, akarren eta zekorren odolaz eta *beia*ren autsaz txipristinduta, aragi-garbiketarako santutu egiten ba'dira...

Cordero (Joan, 1, 29)

He ahí el *Cordero* de Dios que quita el pecado del mundo.

Lei: Huná Iainkoaren *Bildotsa* munduaren bekatutak kenzen dituena.

Duv: Huna Jainkoaren *bildotsa*, huna munduaren bekatua khentzen duena.

Ol.: Orra, giza-ogena kentzen dun Yainkoaren *Bildotsa*.

E-B: Orra or Jaungoikoaren *Bildotsa*, munduaren pekatua kentzen dauana.

Oveja (Joan, 10, 12)

El buen pastor da la vida por sus ovejas.

Lei: Artzain onak bere bizia ezarten du bere *ardiak-gaitik*.

Duv: Artzain onak bere bizia emoten du bere *ardientzat*.

Ol: *Artzain onak bere bizia bere ardientzako* ematen du.

E-B: Artzain onak bere bizia *ardien* alde emoten dau.

Macho cabrío (Mateo, 25, 33)

Pondrá a las ovejas a su derecha y a los *cabritos* a su izquierda.

Lei: Eta ezarriren ditu ardiak bere eskuinean, eta *akerrak* bere ezkerrean.

Duv: Eta ezarriren ditu ardiak bere eskuinean, eta *akherrak* berriz ezkerretik.

Ol: Ta ardiak bere eskui aldean ipiñiko ditu; *akerrak*, ordea, ezkerrekoan.

E.B.: Ardiak bere eskumaldean jarriko dauz, eta *akerrak* bere ezkerrekaldean.

Cabríto (Lukas, 15, 29)

Pero nunca me has dado un *cabrito* para tener una fiesta con mis amigos.

Lei: Eta egundano *pitina* bat eztrautak eman neure adizkidekin atsegin hartzeko.

Duv: Eta behinere ez darotadazu *pittika* bat eman, ene adiskideekin egin dezadan besta.

Ol: Ta *antxume* bat ere ez didazu iñoiz eman, nere adiskideekin yolas artzeko.

E-B: Olan be, *antxume* bat be ez daustazu iñoiz emon, nire adiskideakaz ospatzeko.

Puerco, cerdo (Lukas, 15, 16)

Y deseaba llenar su vientre con las algarrobas que comían los *puercos*.

Lei: Eta desir zuen *urdék* iaten zuten maginxetarik bere sabelaren bethatzera.

Duv: Eta han nahi zukeen sabela bethe *txerriek* jaten zituzten leketarik.

Ol: An, *txerriek* yaten zituzten txillekaz bete naita...

E-B: Eta *txarriak* jaten ebezan ezkurrez sabela bete gura eban.

Puerca, cerda (Pedro'ren 2.^a, 2, 22)

La *puerca* lavada se revuelca en el fango.

Lei: *Ahardi* ikuzia itzuli izan da istilera iraulzkatzera.

Duv: *Urdea*, garbitu ondoan itzuli da bere lohian ihauskatzera.

Ol: *Txerri* ikuzia, lokatzetara berriz.

E-B: *Txarri emea*, garbituta, barriri lokatzatan lorrintzen da.

Perro (Agerpena, 22, 15)

¡Fuera los *perros*, los hechiceros, los impuros, los asesinos, los idólatras y todo el que ame y practique la mentira!

Lei: Baina kampanoan izanen dirade *orak*, eta pozoazaleak, eta paillartak, eta giza-erhaileak, eta idolatreak, eta nork-ere maite baitu eta egiten galseria.

Duv: Kamporat *zakhurrak*, eta phozoindatzaileak, eta lohiak, eta gizon hiltzaileak, eta jainkoaizuntiarak, eta gezurra maite eta egiten duten guziak.

Ol: Utikan! *zakur*, sorgin, zantar, gizeraille, ta gezurra maite ta egiten duten guziak!

E-B: Utikan (kanpora) *txakur*, sorgin, zantar, gizailtzaille, irudigurtzaille, eta guzurra maite ta egiten daberen guziak!

Kerexeta